

## Mondragon Unibertsitateak hiru auto elektriko erosi ditu

2016/06/02

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak hiru auto elektriko erosi ditu I+Grako, honek unibertsitateak ibilgailu hauen alde egin duen apustua sendotzen du.

Ibilgailu hauek eskuratu izana Mondragon Unibertsitatearen ekintza lerroetako batean kokatzen da, eta lerro horren arretagunea da horrelako autoetarako bateriei buruz ikertzea, ibilgailuei zerbitzu berriak emateko beharrezko komunikazioa aztertzea, autonomia handitzea, ibilgailuen arteko interkonexioa lortzea (V2V esaten zaio), ibilgailuen gidaritza autonomoa garatzea, etab. Ibilgailuak Arrasaten zirkulatzen ikusi ahal izango dira komunikazioetarako teknologiak zein bateriak probatzen diren bitartean.

